



## **2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA**

**(BIZKAIERA)**

**1. ABIZENA** \_\_\_\_\_

**2. ABIZENA** \_\_\_\_\_

**IZENA** \_\_\_\_\_

**NORTASUN-AGIRIA** \_\_\_\_\_

**AZTERKETA-EGUNA** \_\_\_\_\_

**AZTERKETA-TOKIA** \_\_\_\_\_



# ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmena eta idazmena. Honeek ariketa biok egiteko **ordubete eta 40 minutu** eukiko dozu.
- Irakurri eizuz ariketa bakoixaren aurrean datoian argibideak, eta egizu bertan ipinten dauana.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Ahalegindu zaitez letra garbia egiten.



## 1. IRAKURMENA

- **Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA
- **Zelan egin:**
  - Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakoitxak berba bat kendu dala adierazoten dau.
  - Aukeratu erantzun egokiena *aukeren orrian* eta markatu **erantzun-orrian**.
  - Ezer egin aurretik, artikulua osorik irakurtea gomendatzen deusugu.

### ZERTAN EMOTEN DOGU GURE ASTIALDIA?

Gure zibilizazioa materialista dala entzun izan dogu askotan, baina beste era batera pentsetan dauanik be badago. Alan Watts filosofo britainiarra zan horreetako bat. Bere ustez, gure gizartea materialismo osasuntsuaren antipodetan dago. Izan be, zibilizazio honek bere oinarri materialak deuseztatzen indar handia ipinten dau —Wattsek munduaren *losangelesizazinoaz* berba egin \_\_1\_\_ eban, hau da, bazter guztiak Estatu Batuetako uri motz, kutsatu eta asfaltoz betearen \_\_2\_\_ bihurtzeko obsesinoaz—. Halanda be, bere eretxiz, astialdiaren \_\_3\_\_ da materialismotik zein urrun gagozan erakusten dauan sintomarik \_\_4\_\_.

Gure gizarte \_\_5\_\_ eta teknifikadu honetan benetan materialistak \_\_6\_\_, denpora librea —hau da, gura \_\_7\_\_ egiteko askatasuna daukagun tartea— \_\_8\_\_ plazer materialetan emongo geunke: jaki goxoz betetako \_\_9\_\_, sexu-orgia alaiak, dantza eta musika-festak, eta abar. Eta zer egiten dogu? Etxeko egongelan sartu eta telebistea ikusi. \_\_10\_\_ daki zein dan arrazoia! Beharrak eragindako nekea, \_\_11\_\_ faltea edo erosotasuna oinarri daukan inertzia soziala. \_\_12\_\_ da, aberastasun eta baliabide material \_\_13\_\_ daukan kultura honetan, errealidade materialaren guzurrezko isla \_\_14\_\_ konformetan garala. Danak isilik, ondoan daukaguzanakandik \_\_15\_\_, askara botaten deuskuen pentsu kulturala kolkoratzeko prest.



Ordezko plazerren \_\_16\_\_ bizi gara. Jan, lo eta amodioa egitea ei da \_\_17\_\_ gustetan jakuna —halan dinoe gehienek—, baina, behin eta \_\_18\_\_ egiten diran inkestek \_\_19\_\_, lo gitxiegi egiten dogu, sexua (benetakoa, ez Interneten \_\_20\_\_ saltzen daberen itxura digitaleko hori) zapatu gauean hogeit minutuz beteten dan ohiturea da, eta janari \_\_21\_\_ jaiegun seinaladuetarako ixten dogu; eguneroko platerean, ostera, McDonalds eta futbola nagusitzen dira. Zelan ulertu, \_\_22\_\_, hamahiru milioi personak (Espainiako estatuko populazioaren herenak) *Operación Triunfo* izeneko luxuzko karaoke erraldoia ikustea baino \_\_23\_\_ hoberik ez izatea? Ondo ulertu eidazue: nire asmoa ez da inoren gustuak \_\_24\_\_, baina gizarte osoa marketing-operazino huts baten \_\_25\_\_ hain pozik irunsten ikusteak zer \_\_26\_\_ emoten dau.

Ez daukat \_\_27\_\_ karaokearen kontra, ezta diskoetxeek antolatutako *casting*-en aurka be, baina harrituta nago \_\_28\_\_ interesadu honegaz guztiagaz. Egia esan, \_\_29\_\_ persona horreek benetako karaokera joan eta bihotza kantuz alaituko balebe, \_\_30\_\_ erdi. Poztu be egingo nintzateke, ikusle pasibo izatea baino \_\_31\_\_ baita norbere ahotsa entzunarazotea, tabernan \_\_32\_\_ ez bada be. Baina erreferenduma \_\_33\_\_ eta hiru milioi personak minutu gitxitan inora ez doan bozketa \_\_34\_\_ baten milioika euro xahutu dituela irakurteak \_\_35\_\_ itxi nau.

\_\_36\_\_ da, jakina, komunikabide batzuek egiten daberen bonbardaketea, horreetako askok \_\_37\_\_ ateraten deusie-eta negozio handi honi, bide batez gure \_\_38\_\_ komenidu ez jakezan gaietatik apartetea lortuz. Halanda ze, aho \_\_39\_\_ itxi nau *Eurovision* zahartuaren \_\_40\_\_ operazino komertzial nabarmen batek zelako \_\_41\_\_ lortu dauan ikusteak. Eta zenbat diru eta kemen inbertidu \_\_42\_\_ jenteak beste batzuen arrakastearen fabrikazino-prozesuaren lekuko izatearen \_\_43\_\_. Ilusinoa potoetan saltzen daberen ederto bizi dira gerizpean, diruaren gainean \_\_44\_\_ amesak beteten, eta besteek, \_\_45\_\_, argien aurrean jarriko dan hurrengo izango dirala \_\_46\_\_ egiten jarraitzen dabe, eta programearen hurrengo diskoak erosteko beharko dituen \_\_47\_\_ irabazten. Marxek erlijinoa herriaren \_\_48\_\_ zala esaten eban. Orain biziko balitz, telebistea dala esango leuke. Baina alde handia dago: abadeak \_\_49\_\_ ez dira izan pantaila katodikoa baizen hipnotikoak. Ondo pentsauta, hori baino ez dogu behar, telepredikatzaileen moda be gure artean errotzea. Azken finean, hamaika ikusteko \_\_50\_\_ gara.

**Martin Barriuso**  
**Zabalik** aldizkaria, 118. zk.  
**Egokitua**

## 1.1. AUKEREN ORRIA

- |   |  |  |   |
|---|--|--|---|
| 1. a) al<br>b) ohi<br>c) ete<br>d) antza                            | 2. a) antzeko<br>b) lako<br>c) bardineko<br>d) antxinako                                 | 3. a) aginterea<br>b) erabilerea<br>c) hasierea<br>d) saiakerea        | 4. a) argia<br>b) argiagoa<br>c) argienik<br>d) argiena             |
| 5. a) franko<br>b) koldar<br>c) oparo<br>d) mutu                    | 6. a) baziran<br>b) balira<br>c) bagina<br>d) baginan                                    | 7. a) dogun<br>b) dogunik<br>c) dogula<br>d) doguna                    | 8. a) egiazko<br>b) egiaren<br>c) egiako<br>d) egiatako             |
| 9. a) goseteak<br>b) ogitartekoak<br>c) otorduak<br>d) zirriborroak | 10. a) Batek<br>b) Nonork<br>c) Hainbatek<br>d) Edonork                                  | 11. a) irudikortasun<br>b) irudimen<br>c) irudikapen<br>d) irudimentsu | 12. a) Guzurrezkoa<br>b) Kontrakoa<br>c) Kontua<br>d) Ipuina        |
| 13. a) ugari<br>b) handia<br>c) moltsoa<br>d) sarritan              | 14. a) elektronikoagaitik<br>b) elektronikotik<br>c) elektronikoan<br>d) elektronikoagaz | 15. a) igarrita<br>b) inguratuta<br>c) aparte<br>d) pozik              | 16. a) garaian<br>b) maldan<br>c) irudian<br>d) alean               |
| 17. a) sobran<br>b) onen<br>c) gehien<br>d) bape                    | 18. a) behin<br>b) birritan<br>c) barriro<br>d) orain                                    | 19. a) dinoenez<br>b) dinoelako<br>c) dinoela-eta<br>d) dinoela        | 20. a) bidez<br>b) atxakiaz<br>c) zehar<br>d) altzora               |
| 21. a) azkarra<br>b) zaborra<br>c) gordina<br>d) goxoa              | 22. a) barriz<br>b) holangoa<br>c) bestela<br>d) orduan                                  | 23. a) ekintza<br>b) zeregin<br>c) garai<br>d) atsekabe                | 24. a) antzeztea<br>b) goraipatzea<br>c) zapuztea<br>d) xuxurlatzea |

25. a) amua  
b) armiarmea  
c) sarea  
d) orratza
26. a) pentsauta  
b) pentsatuz  
c) pentsetea  
d) pentsau
27. a) edozer  
b) inor  
c) zeozer  
d) ezer
28. a) itzuli  
b) jipoi  
c) zalaparta  
d) jαιοera
29. a) milioiak  
b) milioi  
c) milioiko  
d) milioika
30. a) erdiz  
b) ondo  
c) gaitz  
d) poz
31. a) hobeto  
b) hoberik  
c) hobean  
d) hobea
32. a) besterik  
b) baina  
c) behin  
d) nahiz
33. a) baztertu  
b) antolatu  
c) salatu  
d) onartu
34. a) hedatu  
b) argal  
c) hutsune  
d) hutsal
35. a) txundituta  
b) pozik  
c) harrotuta  
d) harrizko
36. a) Ulermenekoa  
b) Ulertzekoa  
c) Ulertuko  
d) Ulerkorra
37. a) harrapakina  
b) izokina  
c) hondakina  
d) etekina
38. a) arretea  
b) antojua  
c) asmoa  
d) kolkoa
39. a) hertsirik  
b) zabalik  
c) bete  
d) hortzetan
40. a) inguruko  
b) aldameneko  
c) aurreko  
d) aurkako
41. a) onbearra  
b) onarpena  
c) omenaldia  
d) baimena
42. a) leiala  
b) leian  
c) lei  
d) leianik
43. a) alde  
b) truke  
c) aurka  
d) ordez
44. a) zuzendutako  
b) botatako  
c) eregitako  
d) eragindako
45. a) halanda be  
b) era berean  
c) orduan  
d) bitartean
46. a) oihu  
b) dei  
c) berba  
d) ames
47. a) sosak  
b) sariak  
c) hondarrak  
d) partidak
48. a) burukoa  
b) lotarazlea  
c) eragilea  
d) lo-bedarra



49. a) lehen  
b) sekula  
c) batez be  
d) orain
50. a) etorriak  
b) jaiok  
c) itzuliak  
d) ohituak



## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** "ZERTAN EMOTEN DOGU GURE ASTIALDIA?"
- **Ariketa-mota:** CLOZE-TESTA
- **Baremazioa:** Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

### ERANTZUN ZUZENAK

1.	<b>B</b>	2.	<b>A</b>	3.	<b>B</b>	4.	<b>D</b>
5.	<b>C</b>	6.	<b>C</b>	7.	<b>D</b>	8.	<b>A</b>
9.	<b>C</b>	10.	<b>A</b>	11.	<b>B</b>	12.	<b>C</b>

13.	<b>A</b>	14.	<b>D</b>	15.	<b>C</b>	16.	<b>A</b>
17.	<b>C</b>	18.	<b>C</b>	19.	<b>A</b>	20.	<b>A</b>
21.	<b>D</b>	22.	<b>C</b>	23.	<b>B</b>	24.	<b>C</b>

25.	<b>A</b>	26.	<b>D</b>	27.	<b>D</b>	28.	<b>C</b>
29.	<b>D</b>	30.	<b>C</b>	31.	<b>D</b>	32.	<b>A</b>
33.	<b>B</b>	34.	<b>D</b>	35.	<b>A</b>	36.	<b>B</b>

37.	<b>D</b>	38.	<b>A</b>	39.	<b>B</b>	40.	<b>A</b>
41.	<b>B</b>	42.	<b>B</b>	43.	<b>B</b>	44.	<b>C</b>
45.	<b>D</b>	46.	<b>D</b>	47.	<b>A</b>	48.	<b>D</b>
49.	<b>B</b>	50.	<b>B</b>				

## 2. IDAZMENA

- **Ariketa-mota:** ESKUTITZA
- **Zelan egin:**
  - Gitxienez 35 lerro idatzi behar dozuz.
  - Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
  - Letra garbia eta txukuna egiten ahalegindu.

**GAIA:** Azken bolada honetan etxean arazoak daukazuez uragaz: ura ebagi egin deusuee, ura lohi ateraten da, eta abar. Auzokoakaz berba egin dozu, eta hareei be beste horrenbeste gertatzen jake. Gainera, azken erreziboan ura asko igon deusuee.

Idatzi eiozu kexa-eskutitz bat alkateari, auzokide guztien izenean, egoerea azaltzeko eta konponbideak eskatzeko.



